



**bai**

ziurtagiridunen aldizkaria

# REBEKA ARRARAS

“Emakumeok ere botere-guneetan  
sartu behar dugu”

ziurtagiriaren elkarte



baieuskarari.org

5. alea  
2011ko maiatza



Rober Gutiérrez  
Zuzendaria

## BAI EUSKARARI, URRATS BIZIAK!

Aldizkari hau egiten dugun guztiok elementu komun batek elkartzen gaitu: Bai Euskararik... Euskarak. Eta Bai Euskarari zerbait bada, bere atzean dauden entitate eta pertsona guztiengatik da; lan munduan, arlo sozioekonomikoan oro har, euskararen ezagutza eta erabilera areagotzeko lanean ari diren guztiengatik.

Asko gara euskara erabiltzeko hautua egina dugunak, euskaraz bizi nahi dugulako, euskaraz lan egin nahi dugulako, euskaraz erosi eta saldu nahi dugulako, euskaraz ikasi nahi dugulako, euskaraz dibertitu nahi dugulako edo euskaraz amestu nahi dugulako...

Guk argi dugu ez dagoela hizkuntza bat normalizatzerik ez bada bere erabilera bermatzen arlo sozioekonomikoan. Gure bizitzaren parte handi bat lanean ematen dugu eta beste parte handi bat beste batzuen lanaz baliatzen. Hortaz, berebiziko garrantzia du alor sozioekonomikoak betetzen dituen espazioetan euskarari lekua egiteak. Horretarako, baina, Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateen nahiz entitate horietan dauden pertsonen parte-hartzea ezinbestekoa da. Argi baitago bakoitzak beretik hasi behar duela hondar-aleak jartzen. Hizkuntzak ez baitira ezer, haiek erabili, bizi eta biziaraziko dituzten pertsonarik gabe. Indarrak batuta, 10 urte baino gehiagoko ibilbidean proiektu eta egitasmo ugari eraman ditugu aurrera, eta etorkizunean ere urrats biziak ematen jarraitzeko asmo sendoa dugu. Bai Euskarari, Urrats Biziak!

### Argitaratzailea:

Ziurtagiriaren Elkartea  
Martin Ugalde Kultur Parkea  
20140 Andoain (Gipuzkoa)  
tel. 943 592148  
[www.baieuskarari.org](http://www.baieuskarari.org)



@baieuskarari



[www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria](https://www.facebook.com/baieuskarariziurtagiria)



[www.baisarean.org](http://www.baisarean.org)

### Zuzendaria:

Rober Gutiérrez

### Kudeaketa eta erredakzio-taldea:

Ziurtagiriaren Elkartea

### Zenbaki honetako kolaboratzaileak:

Juan Kruz Lakasta

### Diseinua eta maketazioa:

BIT&MINA

### Argazkiak:

Ziurtagiriaren Elkartea  
Udaltop, UEMA, Banaiz Bagara,  
Katxiporreta, Lea-Artibai Ikastetxea  
eta Artez

### Inprimatzailea:

Leitzaran

### Banaketa:

Ziurtagiriaren Elkartea

### Lege gordailua:

SS-497-2010

Aldizkari honetan publizitatea sartzeko idatzi [info@baieuskarari.org](mailto:info@baieuskarari.org) helbidera edo deitu 943 592148 telefono zenbakira.

# EUSKARA EZ DAKITENAK EUSKARARA ERAKARTZEKO


Zer da euskara euskaraz ez dakitenentzat? Haiek euskarara hurbiltzeko, zer eta nola egin daiteke udaletik? Galdera horiei erantzuten saiatu ziren apirilaren 7 eta 8 artean, Euskal Herriko nahiz Kataluniako hainbat aditu, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean egin ziren Udaltop 2011 topaketetan. Udaletako euskara zerbitzuek egiten duten lanean lagungarri izan nahi dute topaketok, udal bakoitzak bere bidea egin behar duen arren, interesgarria baita elkarla-

nean aritzeko bideak irekitzea. Horrengatik, hiru helburu nagusirekin egin da Udaltop 2011:

- Euskarazko zerbitzuen esperientziak trukatzeko.
- Esperientzia horiek nola trukatu hausnartzeko.
- Esperientzia berriak elkarlanean abiatzeko.



## IZAN GAITEZEN HIZKUNTZEKIN ERE EKOLOGISTA



*Hizkuntza ekologia eta lurralde euskaldunak* izenburupean topaketak antolatu zituen UEMAk Azpeitian joan den apirilaren 19an eta 80 lagun inguruk hartu zuten parte bertan. UEMArekin 20 urteko ibilbideaz mintzatu baziren ere, topaketako gai nagusia hizkuntza-ekologia izan zen. Gai horretaz Albert Bastardas i Boada Bartzelonako Unibertsitateko Hizkuntzalaritza arloko irakasle katedraduna aritu zen eta bioaniztasunaren eta hizkuntz aniztasunaren arteko analogia egin zuen. Gainerako hizlariak ere bioaniztasunaren diskurtsoa hizkuntzalaritzaren alorrera eraman zuten.



Leitzaran Grafikak, S.L.  
Martin Ugalde Kultur Parkea  
20140 Andoain (Gipuzkoa)  
tel: 943 303510 - fax: 943 593067



- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Inprimakiak



- Aurreinprimaketa
- Inprimaketa
- Koadernaketa
- Prozesu integrala

“IRLANDANET-EN BIDEZ  
IRLANDA EUSKAL HERRITARREN  
ESKU JARRI NAHI DUGU”

Irlandara bisitan edota egonaldi bat egitera doazen euskaldunak gidatzeko enpresa da Irlandanet. Orain dela hiru urte sortu zuten Irlandan bizi diren hainbat euskaldunen artean eta zerbitzu ugari eskaintzen ditu euskaraz: bidaiak, hiri-tourrak, Irlandako musika taldeen kontratazioa, ingelesa ikasteko eta Irlandan bertan lana eta etxebizitza lortzeko zerbitzuak, itzulpenak, hitzaldiak, aholkularitzak, bitartekaritzak...

Nondik atera zen Irlandanet sortzeko ideia?

Gure asmoa Irlandaren eta Euskal Herriaren artean zubiak eraikitzea izan da beti. Irlandan bizitzen daramatzagun urte guzti hauetan ehunka euskaldun ezagutu ditugu. Haien bidez gure herriaren berri ematen diegu irlandarrei. Aldi berean Irlanda euskaldunen eskura jarri eta ezagutzera eman nahi diegu.

Zergatik da Irlanda hain herri berezia euskaldunontzat?

Arrazoi askorengatik. Musika eta dantza zirraragarriak ditu. Paisai zoragarri zosita dago. Irlandarrak oso alaiak, atseginak eta irekiak dira, eta beti daude parrandarako prest. Sekulako giroa egoten da tabernetan. Bertako garagar-  
doak eta whiskyak mundu mailako ospea dute. Gainera euskaldunok bereziki ongi-etorriak izaten gara eta etxean bezala sentiarazten gaituzte. Elkartasun lotura indartsuak ditugu.

Askotan hizkuntza oztopo bihurtzen da, ezta?

Bai, hala da. Zoritxarrez Euskal Herrian dagoen ingelesaren ezagutza-maila ez da oso handia. 40 urtetik gorakoen artean ez dago ia batere ezagutzarik eta

jende askorentzat hizkuntza gainditu ezineko oztopoa bihurtzen da. Baina Irlandanet-en laguntzari esker arazo hori desagertzen da. Dagoeneko inork ez du aitzakiarik ingelesa ez jakiteagatik Irlandara ez etortzeko. Gure zerbitzu guztiak euskaraz eta gaztelaniaz ematen ditugu.

## Zer-nolako zerbitzuak eskaintzen dituzue?

Gure asmoa euskaldunak Irlandan behar duten edozertan laguntzea da. Arlo ezberdinetan ematen dugu lagun-tza hori. Neurrira egindako opor-propo-samenak ditugu, 8 eta 10 egunetako bi-daia gidatuak eskaintzen ditugu, Dublin eta Belfasteko tour politikoak kudea-tzen ditugu. Ikasteko nahiz lan egiteko zerbitzuak ere ematen ditugu: heldu eta gazteentzako ingeles-ikastaroak, gae-liko ikastaroak, au-pair lanak, denboral-di baterako bizitzera, lan egitera, ingele-sa ikastera etorri nahi dutenei laguntza... Horrez gain, Euskal Herriko musika eta dantza taldeentzako birak antolatzen ditugu eta Irlandako musika taldeen kudeaketa egiten dugu. Azkenik, ahol-kularitza edota itzulpen zerbitzuak ere eskaintzen ditugu. Labur esanda, Ir-landarekin zerikusia duen edozertan la-guntzen ahal dugu.

Bai Euskarari Ziurtagiria jaso duzue orain gutxi. Euskal Herriatik kanpo Ziurtagiria jaso duen lehen enpresa zarete. Zer garrantzia ematen diozue euskarari? Euskaldunak gara eta naturaltasunez euskaraz bizi gara, baita Irlandan ere. Gure zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzen ditugu (baita gaztelaniaz eta katalanez ere). Euskal Herriatik kanpo ere euskaraz bizitzea posible dela erakusten eta ahalbidetzen dugu. Euskararen normalizazioaren bidean gure alea gehitu nahi dugu. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak egiten duen lana babestea ezinbestekoa dela uste dugu. Zoriontzekoa da gainera.

Oraindik ezagutzen ez zaituztena nola jar daiteke zuekin harremanetan?

Gure bulegoa Belfasten dago baina  
gure webgunean informazio orokorra  
aurki daiteke: [www.irlandanet.com](http://www.irlandanet.com).

Skypen bidez irlandanet izeneko kon-  
tura dohainik deitu ahal gaituzte.

Telefonoz ere zenbaki hauetan aurki gaitzakezue **0044 28 90 223 137** bulegoa eta **0044 786 22 17 414** sakelekoa

**IRLANDANET:** Bai Euskarari  
Ziurtagiria "Zerbitzua euskaraz" maila.



# KORRIKA INGELESA

Juan Kruz Lakasta

Itxura guztien arabera hauteskundeak gertu zirela eta, UPNko agintariek ez zioten trabarik jarri azken **Korrikari**. Ibilbidea aldatzeko agindurik ez, festak egiteko debekurik ez, amuarraingaren legez kanpoko arrantzaren apologia egitearen akusaziorik ez. Jada ohitura zahar bilakatuak ziren traba administratibo eta manipulazio politiko horiek gabe, egiaren aitortzeko sekula baino gehiago kostatu zitzaidan **Korrikan** parte hartzeko aski indar biltzea.

Sekula baino gehiago kostatu zitzaidan txandala eta zapatilak janzte aurtengo **Korrikara** joateko. Eskerrak egin nuen; izan ere, sekula baino gehiago gozatu nuen, ikusiz gure hiru urteko alabak, Maddik, nola gozatu zuen, hasiera hasieratik txalo, oihu, korrika eginez, guztiz euforiko.

Esan gabe doa sekula ez diogula euskarari buruzko txaparik sartu. Ez dakiela deus milenarismo ez erasoez. Gure alabaren euskararekiko atxikimendua funtzionaltasunarekin, sentimenduekin, naturaltasunarekin loturikoa da. Euskaraz jasotzen du bere gurasoen maitasuna. Euskarazkoak dira gehien gustatzen zaizkion bideoak -Pirritx, Porrotx eta Marimototsenak- gaztelerazkoak badituen arren. Euskara da hobekien ulertzen duen hizkuntza, gazteleraz ere badakien arren. Horregatik poztzen da gure Iruñea nagusiki erdaldun honetan ezezagun batek -dendari batek, konparaziora- euskaraz egiten dionean. Horregatik jarri zen euforiko azaldu geniolarik **Korrika** euskararen aldeko festa zela eta han zen jendetza hura guztia euskararen aldekoa zela. Esan gabe doa askoz gehiago gustatzen zaidala Maddiren diskurtso soziolinguistikoa

bere aitarena baino. Askoz biziagoa eta eraginkorragoa iruditzen zaidala. Uste dudala badela garaia berea zabaltzeko eta bere aitarena gainditzeko.

Irakurlea dagoeneko hasiko zitzaien bere buruari galdetzen ea zer zerikusi duen honek guztiak lan munduaren eskalduntzearekin. Kontua da artikulua eskatu zidatelarik, **Korrika** amaitu berria zela, eta nik gogoan nuela bai Maddiren irudia, baita *Nafarroako Hitza*-ko lankide eta lagunak ere. Haiek ere euforiko jarri ziren **Korrikan**, Iruñeko bihotzean lekukoa eraman zutelarik. Kilometroa, baina, ez zuten haiek ordaindu baizik eta, kasu, El Corte Inglés-ek. Azalera handiko saltokiak **Korrika** guztietan ordaintzen du kilometro garestienetako bat Iruñeko erdigunean, eta antolatzaileen esku uzten du hori nori oparitzeko dioten erabakitzea.

El Corte Inglés ez da edozein azalera handiko saltoki. Espainiako ekonomiako ikur nagusietakoa da. Eta UPNko agintariek sekulakoak eta bi egin zituzten ikur hori Iruñeko bihotzean paratu ahal izateko. Nafarroako Liburutegi Nagusia eraikitzeke baliatu behar zuten orubea birkalifikatu eta hantxe jarri zuten Isidoro Álvarez-en denda erraldoia. Harrigarriki, baina, hasiera-hasieratik Álvarezek UPNrena ez bezalako hizkuntz-politika ibili du. **Korrikako** detailea gutxi baitzantzan, Espainiaren ekonomiaren ikur den azalera handiko saltoki horrek, non eta Nafarroa bezalako nortasun propioa eta bereiziko erkidegoko hiriburu linguistikoki gatazkatsuan, bere eraikineko kartel guztiak euskaraz eta gazteleraz jarri ditu, bi hizkuntzetan tamaina eta kolore-intentsitate bereko hizkiak erabiliz, agintari erregionalisten eredu(txarra)



“El Corte Inglés-en euskararekiko atxikimendua funtzionaltasunarekin loturikoa da. Axola zaiena da jarrera euskaltzaleak bezeroak irabazten laguntzen diela”

bazterrean utzirik. Martxa honetan, aurrerantzi Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratuko du. Edo ez.

Edonola ere, bistan da El Corte Inglés-en euskararekiko atxikimendua funtzionaltasunarekin loturikoa dela. Haiei bost axola milenarismoak eta aspaldiko garaietako zein egungo erasoak. Haiei axola zaiena da jarrera euskaltzaleak bezeroak irabazten laguntzen diela. Ez duela inor uxatzen. Eta hainbat erakartzen dituela. Jakin badakite-eta euskaldunak bere hizkuntz eskubideekiko errespetua zinez eta bihotzez eskertzen duela. Funtzionaltasuna eta sentimendua, elkar loturik. Badira, jakina, enpresek aintzat hartzeko moduko beste hainbat faktore. Baina, ene -alabaren?- uste apalean, nagusia horixe da: El Corte Inglés bezalako enpresa batek Iruñea bezalako hiri batean erakutsitako jarrerak ederki erakusten duenez, euskara lan munduan sartuz asko dago irabazteko eta gutxi galtzeko. Euskarak funtzionatzen du, euskaldunok maite dugulako.



# Rebeka ARRARAS

RBK diseinu enpresaren jabea eta Nafarroako Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarteko presidenteordea

17 urte daramatza Rebeka Arrarasek RBK diseinu enpresa zuzentzen eta 16 urte Nafarroako Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarteko presidenteorde postuan. Emakume enpresaria izatea gogorra egin bazaio ere zenbait unetan, oso interesgarria eta benetan aberasgarria gertatu zaio orain arte egin duen ibilbidea.

**RBK enpresako jabea eta burua zara. Zergatik sortu zenuen enpresa? Nolatan hartu zenuen erabaki hori?**

Kreatibitatearen munduan lanean has- ten bazara oso zaila da beste baten menpean lanean aritzea eta horrexega- tik sortu nuen enpresa, neure lanak egin eta nire proiektuak aurrera eraman nahi nituelako. Kukuxumuxurekin hasi nin- tzen lanean, baina segituan konturatu nintzen ez nuela nahi beste baten az- pian lanean aritu, beraz neure kasa hasi beste aukerarik ez nuen izan.

**Orain dela 17 urte sortu zenuen RBK. Nolako bilakaera izan du enpresak?**

Hasieran bi lagun hasi ginen, baina pixkanaka-pixkanaka handitzen joan gi- nen eta bost langile izatera iritsi ginen.

Momentuan, ordea, hiru gaude lanean eta beste bi autonomo gisa. Krisiak go- gor eragin zigun. Enpresa mantendu da, baina bi kide kalera joan behar izan zi- ren. Bi urte nahiko gogorrak pasa ditugu.

**RBK diseinu enpresa da. Zer lan mota egiten duzue?**

Komunikazioaren arlo guztietan eta diseinu orokorrarenean aritzen gara. Azken batean, diseinu estrategikoan oinarritutako plan orokorrak egiten diz- kiegu enpresei. Gu ez gara publizitate enpresa, gu sortzaileak, diseinatzaileak gara. Baina egia da publizitatea ere egin dugula. Eta beno, erakusketa edo mu- seo munduan ere mugitu gara. Kontua da alor asko ukitu ditugula, denetarik egin dugula.

**Betidanik garbi izan duzu zure jarduna diseinura bideratu nahi zenuela?**

20 urterekin konturatu nintzen. 18re- kin Ingeniaritza egiten hasi nintzen eta hiru urtean han egon ondoren kontu- ratu nintzen hura ez zela nirea. Polita zen, baina nik beste zerbait nahi nuen. Niri sortzea gustatzen zitzaidan eta hasi nintzen diseinu industrialari buruz entzuten eta hori zer ote zen araka- tzen eta azkenean diseinu industrialak ikasi nuen Bartzelonan. Amaitu ondo- ren, diseinatzaile industrial bezala oso zaila zenez lana aurkitzea, gauzatxo txikiak egiten hasi nintzen. Azkenean diseinu grafikoan, edo beno, disei- nuan orokorrean murgildu nintzen. Eta esan dizudan bezala, orain denetatik egiten dut.

# "Bai Euskarari Ziurtagiria guretzat eraginkorra izan da, euskara gure egunerokoan normalizatzeko balio izan digulako"

## Enpresa sortu nahi zenuela ere argi zenuen?

Ez. Nik behintzat ez nuen pentsatzen enpresa sortu nahi nuenik. Nik nahi nuena zen nire kabuz lan egitea. Nire diseinua eta nire kreatibitatea eskaini nahi nituen, eta pixkanaka hasi nintzen hainbat lan egiten eta ia konturatu gabe enpresaren munduan sartuta nengoela ohartu nintzen.

## Zeure enpresa izateak zer abantaila eta zer desabantaila ekarri dizkizu?

Abantaila nagusia da zeure kabuz lan egiten duzula eta horrek gauzak zeuk nahi duzun moduan egitea ahalbidetzen dizula. Zuk gidatzen duzu enpresa eta zuk erabakitzen duzu nondik-nora joan. Desabantailak ere badira: kezka handiak, arazo piloa, ez duzu inoiz atseden hartzen, beti egon behar duzu adi...

## Nafarroako Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarteko presidenteordea zara, eta baita bultzatzaileetako bat ere. Zergatik eta zertarako sortu zenuten Elkartea? Zer nolako bilakaera izan du eta gaur egun zer funtzio betetzen du?

Bai, zuzendariordea naiz hasieratik. Elkartea 16 urte ditu eta nik ere kargu horretan 16 urte daramatzat. Orain ere bai, baina momentu hartan are desberdintasun handiagoa zegoen emakume eta gizonezkoen artean. Oraindik ere alor askotan emakumeak beste maila

batean gaude. Eta enpresa munduan ere hori horrela da. Baina orain 16 urte desberdintasunak erraldoiak ziren: enpresetako zuzendaritzetan ez zegoen ia emakumerik eta enpresari bezala ere oso emakume gutxi genbiltzan. Eta gainera, azken urteetan sortu diren eztabaida guztiak orduan ez ziren esistitzen. Adibidez, kontziliazioaz emakumeok hasi gara hitz egiten, nahiz eta emakumeon arazoa bakarrik ez izan. Begira zenbat pausu eman ditugun lan munduan ere: amatasun eta aitasun baimenak, malgutasuna ordutegietan, orduen murrizketak... lorpen ugari. Eta hori Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkartetik ere bultzatu dugu. Ez dute sindikatuek soilik egin, enpresaren mundutik ere egin da.

Momentu hartan elkartu ginen enpresari guztiak oso txikiak ginen. Denak ginen zerbitzu enpresak edota jatetxeak eta antzekoak. Beste batzuk ziren denbora mordo zeramatenak senarrarekin lanean, baina lankide izan gabe. Egoera asko oso latzak ziren. Gauza horiek Europan eztabaidatu ahal izan ditugu. Gu, Nafarroakoak oso mugituak izan gara betidanik eta Europako botere-gune askotan estatua ordezkatu izan dugu. Proiektu nahiz egitasmo askotan edota eztabaida askotan parte hartzeko aukera izan dugu. Hor joan dira lan munduko

eta enpresa munduko eztabaidak sortzen. Nik uste dut gauza asko egin ditugula. Nafarroan adibidez, CEN-en (Confederación de Empresarios de Navarra delakoan) egotea lortu dugu. Ez zen inoiz emakumerik egon eta gu hasi gara. Merkatal Ganberan ere gauza bera gertatu da. Gure lehendakaria, Victoria Vidaurre da emakume bakarra. Bi erakunde horien, hau da, CEN eta Merkataritza Ganberaren Batzorde Eragileetan parte hartzen dugu. Beste hainbat erakunde eta organizaziotan ere bagaude. Beste ezereen gainera egin duguna da hor kuña bat sartu. Gizonezkoak soilik badaude kargu guztietan, erabaki guztiak ere haiek hartzen dituzte eta erabaki guzti horiek maskulinoak dira, bai erabakiak eta baita aurreikuspenak, estrategiak, planak, etorkizuneko gestioak, proiektu berriak etab. ere. Emakumeok ere botere-gune horietan sartzen joan behar dugu.

## Elkartea sortu zenutenetik gaur egunera alderik nabaritzen da?

Berdintasunik ez dugu lortu inondik inora. Baina nik uste dut egoera aldatu dela. Enpresetako zuzendaritzetan orain askoz ere emakume gehiago daude. Zuzendaritza postuetan dauden pertsonetatik % 19 dira emakumezkoak, 2009ko datuen arabera. Ez dira asko izango, baina kontua da orain dela 16



ELHUYAR  
aholkularitza

Jarri gurekin harremanetan!  
www.elhuyaraholkularitza.net  
aholkularitza@elhuyar.com  
eta...



ELHUYAR Aholkularitza  
eraldatzeko giltza

e  
euskararen  
normalizazioa

=  
emakume eta gizonen  
aukera berdintasuna

o  
herritarren  
parte-hartzea

urte ia batere ez zegoela. Azken batean, emakumeei gehiago kostatzen zaie zuzendaritza postuetara iristea. Gizonaren kasuan ez da hori gertatzen. Ez daukate arazorik bidaiatzeko, mugitzeko, goiz etxetik ateratzeko, bazkaltzera etxera ez joateko, haurra ikastolatik ez hartzeko... Emakumeak, gainera, presio sozial handiagoa dauka eta zailagoa dauka botere zirkuluetan edo sare informalean sartzeko. Ezin gara joan padel-ean jokatzera, edo elkarte batetara afaltzera astearte batean. Ezin gara joan eta ez gara joaten agian nahi ez dugulako. Baina gizonak joaten dira eta beren sareak egiten dituzte han, beraien enpresa harremanak... Sare horiek funtzionatzen dute.

#### Zure esperientzia enpresa-zuzendari-emakume bezala nolakoa izan da?

Interesgarria izan da. Egunero da berria. Baina baita gogorra ere, arlo guztietan egotea tokatzen zaizulako eta askotan erabaki zailak hartu behar dituzulako. Hala ere, ez nuke aldatuko, oso gauza polita da enpresa mundua. Kontuan hartu behar dugu era berean, gure enpresa zerbitzu enpresa dela eta gure bezeroen enpresetan murgiltzen naizela ni. Komunikazio eta diseinu eta irudi munduan lan ugari egiten dugu, beraz, enpresetako izkin guztietan sartzen gara... Horrek ahalbidetu dit enpresari buruz ere gauza asko ikastea. Harreman pertsonalak ere asko lantzen ditugu enpresa ezberdinetako jendearekin eta hori ere oso aberasgarria da. Emakume Enpresarien Elkar-tearen bidez ere enpresa asko ezagutu dut. Hor gure sarea daukagu eta Elkar-tea bera ere lobby edo sare bat da. Gauza asko entzun, aztertu, ezagutu, konparatu, etab. egiteko aukera izan dut. Horretan guztian denbora asko "galdu" dut, baina oso aberasgarria izan da.

Pentsatzen dut oraindik ere aldatu beharreko alderdi asko egongo direla botere edo zuzendaritza postuetan emakume gehiago egote aldera. Nola ikusten duzu etorkizuna?

Emakumeak ari gara pixkanaka sartzen enpresa munduan, baina gauza asko daude oraindik aldatzeko. Emakumeen kontzientzia aldatu behar da lehenik eta hezkuntzatik hasi behar gara horretan. Neska-mutikoei kontatu behar zaie enpresa mundua beharrezkoa dela, gizarteak aurrera egin dezan norbaitek izan behar duela enpresari"



"Emakumeok askotan beldurtiak gara eta pentsatzen dugu ez garela gai zenbait postu betetzeko"

behar dela enpresari, negozio txiki bat nahiz enpresa handi bat izan daitekeela aktibitate oso duina, polita, interesgarria. Hori alde batetik. Eta bestetik, berdintasunean bizitzen erakutsi behar zaie. Gero, kultura ikuspuntutik ere gauza piloa aldatu behar dira. Emakumeok askotan beldurtiak gara, oso beldurtiak eta pentsatzen dugu ez garela gai zenbait

postu betetzeko. Gizonezkoekin, berriz, kontrakoa gertatzen da, beti esaten dute baietz. Gizonezkoentzat toki batean dago arrakasta eta emakumezkoentzat beste toki batean. Hori horrela izanik ere, azkenik egin behar duguna da oztopoak kendu. Hau da, zuzendaritza edo botere postu batean egon nahi duen emakumeari lagundu behar zaio. Izan ere, agian emakume batek aurreiritzi kulturalak kentzea lortu du, pentsatu du bere momentua dela eta zerbait berezia egin nahi du, baina orduan arazo mordotzekin egiten du topo. Arazo horiei konponbideak bilatu behar dizkiegu. Gauza asko aldatu behar dira eta pixkanaka egin behar dira aldaketa horiek, baina aldaketak egin daitezke. Eta nik uste dut gainera momentu bat iritsiko dela, abiadurak *boom* bat egingo duena. Orain ari gara gaia orokorrean aztertzen, baina zentratutakoan dena azkarrago joango dela espero dut.

#### Berriz ere gaiz aldatuz eta euskararen alorrera etorritz, zure enpresak Bai Euskarari Ziurtagiria du. Zergatik erabaki zenuten Bai Euskarari Ziurtagiria eskuratzeko?

Ezagutu bezain laster erabaki nuen eskuratzeko, ni euskalduna nintzelako eta nirekin lan egiten zutenen artean ere bi euskaldun zeudelako. Gainera, betidanik izan ditugu bezero nahiz hornitzaile euskaldunak ere. Bagenituen harremanak euskaraz. Gainera, niri zera gertatu zitzaidan: Bartzelonan ikasi nuela eta kanpoan zortzi urtez bizi izan nintzen euskara galdu nuela. Beraz, pentsatu nuen Bai Euskarari oso tresna balio-tsua izango zela euskara gure enpresan nahiz gure buruetan txertatzeko, eta halaxe izan da.

#### Bai Euskarari Ziurtagiriak enpresari onurarik ekarri dio?

Lagundu dio enpresari, bai. Gauza guztiak jarri ditugu modu elebidunean. Guretzat eraginkorra izan da euskara

gure egunerokoan normalizatu delako. Detaile txikitxoetan euskara sartzen bazu, pixkanaka barneratu egiten duzu. Orain dela sei-zazpi urte ez nuen pentsatzen adibidez, aurrekontuak inoiz euskaraz egingo nituenik eta orain egiten ditut.

**Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkartearen zuzendaritzako kide ere bazara. Zein funtzio betetzen duzu zuk?**

Zuzendaritzan gaudenok lan mundua ordezkatzeko dugu. Erakunde ezberdinetako jendea gaude eta nik Nafarroa ordezkatzeko dudala esan nezake. Dena den, azken batean egiten duguna da Bai Euskararen kudeatzaileen erabaki eta pausoak onartu edota balidatu. Horrez gain, proposamenak ere egiten ditugu.

**Bai Euskarari Ziurtagiriak zer uste duzu eskaintzen diola euskal gizarteari? Eta zer euskal enpresei?**

Nik uste dut oso tresna baliotsua dela euskararen normalizaziorako. Enpresa mundua oso arlo inportantea da gizartean eta oso ideia ona izan da hortik sartzeara. Bai Euskarari Ziurtagiria enpresa ziurtagiri bat da eta beste enpresa ziurtagiriekin bezala, edota kalitate ziurtagiriekin bezala enpresan zerbait normalizatzeko balio duen tresna bat da. Bai Euskararen kasuan, hizkuntza normalizatzeko ziurtagiri bat da.

**Zergatik esango zenieke oraindik Bai Euskarari Ziurtagiria ez daukaten entitatei Ziurtagiria lortzeko?**



“Orain dela sei-zazpi urte ez nuen pentsatzen adibidez, aurrekontuak inoiz euskaraz egingo nituenik eta orain egiten ditut.”

“Bai Euskarari Ziurtagiria enpresa ziurtagiri bat da eta beste enpresa ziurtagirik bezala, edota kalitate ziurtagirik bezala enpresan zerbait normalizatzeko balio duen tresna bat da.”

“Euskal gizarteak egin behar duena da bere hizkuntza zaindu eta bere hizkuntza landu.”

Euskal gizarteak egin behar duena da bere hizkuntza zaindu eta bere hizkuntza landu. Euskararen estandarizazioa eta normalizazioa nahi baditugu, horrelako tresnak sortu behar ditugu. Ez gara ezer arraroa asmatzen ari. Espainian, Frantzian, Italian edota beste edozein herrialdetan ez litzateke onartuko bertako hizkuntza erabiltzen ez duen enpresa bat. Euskaldun sentitzen garenok bide horretan egin behar dugu aurrera.

**Bai Euskararekin hasiera-hasieratik izan zara oso inplikaturik. Beti eman duzu gainera Nafarroako ikuspegia. Nola ikusten duzu hango egoera? Zer egin beharko litzateke aurrera begira? Eta zer funtzio bete lezake Bai Euskarari Ziurtagiriak lan horretan?**

Ez dut ezkorra izan nahi, baina Nafarroan are eta okerrago gaude. Euskara alde batetik normalizatzen joan da, adibidez, ikastolen edo eskola publikoaren munduan, gizarte mugimenduak ere euskara zaindu eta landu du, baina dakigun bezala Nafarroako Gobernuak eta dauden bestelako erakundeek ez dute ezer egiten euskararen alde. Badaude herri erakunde edo Udaletxe batzuk zaintzen dutenak. Egia da baita ere Nafarroan badagoela sare bat, badagoela jende euskalduna, badaudela zorionez haur euskaldunak, badagoela kontzientzia... Eta beno, euskaldun kopurua azken urte hauetan handitu da. Euskara gehiago erabili eta hobeto zaindu behar dugu.

# bidera

## zerbitzuak

Banaketa-Komunikazioa  
Itzulpenak-Aholkularitza  
Publizitatea-Dei zentroa



**berria**  
taldea

# EUSKARAZ SALTZEN IKASTEKO

**BANAIZ BAGARA** elkarteak euskara-ikasleekin proiektu pilotua jarri du martxan. Lan merkatuan aukera gutxi dituzten pertsonen, batez ere etorkinei, baina baita beste edozein langabeturi ere, lan munduan salmenta euskaraz egiten ikasteko aukera eskaintzen die. Horretarako, hainbat Udalekin elkarlanean, herriko azoketan salmenta postuak jartzen

dituzte. Bertan, **BANAIZ BAGARA**ko ikasleek, elkarteko monitore batek lagunduta komertzio nahiz enpresa ezberdinetako produktuak saltzen dituzte. Euskaraz saltzen ikasteko, saltzaileek diru-sarrera bat jasotzen dute, eta denbora jakin batez, praktikak egiten dituzte.

**BANAIZ BAGARA** elkarteak argi du salmenta euskaraz egiteko gai izatea balio erantsia dela langilearentzat eta lana bilatzeko orduan horrek lagundu egingo diola. Proiektu pilotu honetan parte hartzen duten enpresak ere onura argiak izango ditu, **BANAIZ BAGARA**-ren arabera. Izan ere, salmentek emango dizkieten etekinez gain, merkataritzaren euskalduntzean protagonista izango da eta euskarazko lan-gizarteratzean aktiboki parte hartuko du.

Momentuan **BANAIZ BAGARA** elkarteak Gipuzkoako bost herritan etorkinei zuzendutako euskaraz praktikatzeko taldeak osatzen ditu eta azken bost hilabeteetan Hernaniko eta Andoaingo merkatu txikietan salmenta postuak jarri ditu, ikasle errumaniar eta senegaldarrekin.



**BANAIZ BAGARA:** Bai Euskarari Ziurtagiria "Bidean" maila.

# PAILAZOAK ETIOPIAN



Porrotx eta Marimotots Etiopian izan dira, "Etiopia Utopia" gobernuaren kanpoko erakundeko hainbat lagunekin batera. Wukro inguruetan izan dira, Angel Olan hernaniarrak sortutako umezurztegia barrutik ezagutzen. Bertan jaten ematen diete haurrei, eta lotarako lekua bideratzen diete, eta are garrantzitsuago dena, bizitzan aurrera egiteko tresnak eskaintzen dizkiete, heziketari garrantzia emanaz, ofizioak erakutsiz, nekazal eskolan ortua landuz eta ezagutuz. Orain hartz-klinika bat ari dira sortzen Wukron Etiopia Utopiako lagunak. Hango umeekin batera irri, salto eta dantza ibili dira Porrotx eta Marimotots.

**KATXIPORRETA:** Bai Euskarari Ziurtagiria "Zerbitzua eta lana euskaraz" maila.



# OOH!PARI TXARTELA

Zenbatekoa zeure esku. 15 eurotik hasita  
Gastatu saldoa zeure erritmora  
Gastua informazio gunetan kontrolatu

# ARRISKUAK ETA PREBENTZIOA EUSKARAZ LANTZEN

Lea-Artibai Ikastetxeak sentsibiltate berezia dauka arriskuen aurreko prebentzioaren gaian, izan ere, haurtzaroan jasotzen den informazioak eta lantzen diren jarrerak eragin zuzena dute giza-kiaren etorkizunean. Era berean, Lea-Artibai Ikastetxeak argi du euskararen alde egin beharreko lana etengabea dela eta edukiz jositakoa. Horrela bada, bere arduren artean dauka ikasturtez ikasturte haurrentzako arriskuen inguruko materialak euskaraz sortu eta banatzea.



Hauexek dira 2010-2011 ikasturtean publikatutako lanak:

● **Haurrak non arriskua han VI:**

Ikastetxeetako ebakuazio plana lantzen da zutabe aldakorrek jolastuz.

● **Haurrak non arriskua han VII:**

Ikastetxean sortzen diren arrisku egoerak lantzen dira, esaldiak osatuz.

● **Gairik gai II. Zer dakizu zaratari buruz?:**

Irudiz eta testu laburrez osatutako liburuxka.

● **Bederatzi bederatziko** (aplikazio informatikoa):

Jokoen bidez 9 gai lantzen dira:

Kolpeak / Erorketak / Ebakiak / Harrapatzeak / Intoxikazioak / Erredurak / Suteak / Arnas itomenak / Jarrera desagokiak.

● **Prebentzioa eguneroko egoerak** (aplikazio informatikoa):

Guztien egunerokotasunean hain ezagunak diren 5 guneetako arriskuak jokoen bidez landuta.

Etxeko arriskuak / Kaleko arriskuak / Mendiko arriskuak / Hondartzako arriskuak / Ikastetxeko arriskuak.

Arriskuak ezagutu, izendatu eta horien aurrean hartu beharreko jarrerak euskaraz lantzen jarraituko du aurrerantzean ere Lea-Artibai Ikastetxeak.

**LEA-ARTIBAI IKASTETXEA:** Bai Euskarari Ziurtagiria "Zerbitzua euskaraz" maila.

## HIRUKIDEN EUSKARA BIZIAGO, HIZKUNTZA-NORMALIZAZIORAKO PROIEKTUEN BIDEZ

Hirukide ikastetxean hizkuntza normalizatzeko eta ikastetxean euskara txertatzeko, hizkuntza-plangintza eratu eta hedatu dute. Konpetentzietan oinarritutako curriculumak garatuz kalitatezko heziketa bermatzea da Hirukide Ikastetxearen xede nagusia. Horrexegatik, irakaskuntza akademikoan ez ezik, gelaz kanpoko ekintzetan ere (kirolak, aisialdi taldeak, begiraleen prestakuntza, etab.) esfortzu handia ari dira egiten euskararen presentzia eta erabilpena areagotzeko.

Emaitzak begi-bistan daude. Ikastetxek honek 2002ko irailean eskuratu zuen Bai Euskarari Ziurtagiria. Oso ibilbide luzea



egin du, baina baita oparoa ere. Iaz, Bai Euskarari Ziurtagiriaren 'Zerbitzua eta Lana Euskaraz' maila lortu baitzuen Hirukidek. Azkenik, Ziurtagiriaren Elkartek Bai Euskarari Saria eman dio ikastetxeari bere egunerokoan euskara txertatzeko egindako aurrerapauso guztiengatik.

Hirukide ikastetxean hiru euskara teknikari daude: Joseba Antxustegietxar-

te, Maite Etxabarri eta Ane Lasa. Haien esanetan, Bai Euskarari Sariaren bidez haien lana eta izena hainbat lekutan ezagutzera eman dira: "Tolosaldean gurekiko dauden aurreiritzi okerrak puskatzeko aukera bikaina ere eman digu, erreferente izatearen konfiantza eta aurrera egiteko animoa".

Hirukide ikastetxean argi dute euskararen erabilera eta presentzia normalduko badira, elkarlana, sarea osatzea, guztien inplikazioa eta emozioak kontuan izatea ezinbestekoa dela. Beraz, eskola-komunitate osoaren parte-hartzea bultzatzen saiatzen dira: ikasleena, langileena nahiz familiena. Eta aurrera begira ere norabide horretan jarraituko dute lanean.

**HIRUKIDE IKASTETXEA:** Bai Euskarari Ziurtagiria "Zerbitzua eta lana euskaraz" maila.

# HIZKUNTZA JOKABIDEA ALDATU NAHI DUENAREN TZAT

Artez euskara zerbitzuak [www.aritu.eu](http://www.aritu.eu) webgunea garatu du hizkuntza jokabidea aldatu nahi duten euskaldunei zuzenduta. Webgune honek hainbat esparrutan eta egoeratan euskara maizago erabiltzeko tresna lagungarri batzuk eskaintzen ditu. Sarri askotan, euskaldunok euskara ez den beste hizkuntza bat aukeratzen dugu, gure hizkuntzari uko eginez eta norberarengan frustrazioa sortuz. Errealitatea, hala ere, erabat desberdina izan daiteke, eta norberarengan dago errealitate hori hein handi batean aldatzeko giltza. [www.aritu.eu](http://www.aritu.eu) webguneak hizkuntza portaera horiek aldatu nahi duenari bost urratseko ibilbidea proposatzen dio. Ibilbide horretan erabiltzaileari bere egoeraz hausnartu, zer nahi duen erabaki eta hori lortzeko baliabideak ematen zaizkio.

Hilabete baino gehiagoko ibilbidea egin du webguneak eta sortzaileek balantze oso positiboa egiten dute. Hasieran helburu modura jarritako 500 erabiltzaileak gairiditu baitituzte aise: “Horrek esan nahi du hainbat euskaldun euskaraz egiten duten erabileraren inguruan behintzat hausnartzen hasi direla” diote proiektuaren garatzaileek. Erabiltzaileek beraiek egindako ekarpen eta iruzkinak ere ideia horretan berresten ditu aritu.euren sortzaileak. Jendeak oro har gustura jardun duela adierazi die, eta hausnarketarako eta aldaketarako balio izan diela esanez jaso dituzte mezuak. “Jaso ditugun iritziek guk nahi genuena maila batean lortu dugula adierazten dute. Batek jendeak hizkuntza-jokaeraz hausnartu dezan lortu dugu eta bestetik aldaketa ere eragin dugula dirudi batek baino gehiagok esandakoarekin”. Adibideren bat jartzeko orduan batzar jendetsue-

**aritu.eu**  
euskara duzun giltza

Hasiera Profila Irten

HASIERA LAN TALDEA PRIBATUTASUNA HARREMANA

2011ko martxoaren 14(a), astelehena

**ARITU**

- Sarrera
- Pausoak
- Tresnak
- Baliabideak
- Egoera
- Egunerokoa
- Foroa

**ONGI ETORRI!**

Ibilbidearen hasieran zaude. Bost pausotan burutuko duzu ibilbide hau. Zeuk nahi duzun erritmoan egin, baina ez da komeni lau aste baino gehiagorik luzatzea, ezta, egun batean egitea ere.

Hauk dira emango dituzun pausoak

1. pausoak: zure egoera aztertu
2. pausoak: egiten duzuna hausnartu
3. pausoak: nora iritsi nahi duzun zehaztu
4. pausoak: jomugara iristeko trebakuntza jaso
5. pausoak: praktikan jarri

5. Pausoa  
4. Pausoa  
3. Pausoa  
2. Pausoa  
1. Pausoa

tan erdaldunak egon arren orain euskaraz naturaltasunez ari dela esan duenarena aipatu dute edota “besteren batek koadrilan euskaraz zeinek gehiago egin apustuak egiten ari direla esan digu”.

## ARITU.EU BOST PAUSOAN

[www.aritu.eu](http://www.aritu.eu)-k bost pausotan antolatutako prozesua planteatzen du. Ez da komeni egun bakarrean egitea ezta larregi luzatzea ere. Portaeren inguruan hausnartzeko eta aldatzeko adina.

Lehen pausoa auto-diagnostiko moduko bat da hausnarketarako bidea emango diguna. Zer egiten dut, noiz eta zer egoeratan? Horretarako inkesta bat bete behar da, bakoitza jabetu dadin zein jokabide duen hizkuntzarekin. Bigarren pausoa egiten dudana zerga-

tik egiten dudana pentsatzera eramango gaitu. Egiten dugunaren atzean faktore desberdinak daudelako eta konpontzeko alde aurretik identifikatu behar dira.

Hirugarren pausoa eta gure egoera zein den ezagututa, erabiltzaileok erabakiak hartzeko momentua izango da. Helburu batzuk hartuko ditugu esaterako nire lagunek (euskaldunek) erdaraz egiten didatenean euskaraz egingo diet edo telefono-konpainiakoei zerbitzua



euskaraz emateko eskatuko diet. Azken finean guk zehaztuko dugu zer lortu nahi dugun. Guk hartutako erabakiak eta asmoak hutsean geratu ez daitezten astebetera mezu bat jasotzen dugu hartutako helburuak gogorarazten. Aurrerago helburu berriak hartzeko mezu gogarazleak jasoko ditugu.

Helburuak betetzeko tresnak laugarren urratsean topatuko ditugu: asertibitatea, aurreiritziak, autoestimua... lantzeko baliabideak eskaintzen dizkigu webguneak.

Eta azken urratsa, bosgarrena, ekiteko urratsa da. Bidean ikasitakoa eta jasotakoa praktikara eramateko urratsa.



Ainhoa Unanue, psikologoa

## PSIKOLOGOAREN EKARPENA

Hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktore psikologikoetan oinarrituz, portaera aldaketarako pausoak zehaztu dituzte Artezen. Portaera aldaketarako jarraibideak garatu eta jokabideak aldatzeko baliabide kognitiboak, fisiologikoak eta motoreak landuz. Portaera-aldaketa horretan eragiten duten faktoreak identifikatzen saiatu dira: euskararen ezagutza maila, hiztunaren konfiantza, ingurukoekiko harremanak, motibazioa, aurreiritziak, hizkuntzan eragiten duten emozioak, pentsamendu positiboak eta negatiboak, aurreiritziak...

## IRUDI ERAKARGARRIA ETA HURBILEKOA

Webguneak eduki aldetik barik, irudi aldetik ikusten diren garaiak direla bada-kigu. Aritu.eu ordea eduki ugariko ataria dela kontutan izanda, erakargarri eta hurbilekoa egiten saiatu dira; bisitaria eroso sentiaraziko duen bitartekoa egiten.

Giltza sorta edo pertsona multzo bat gogorazten digun koloredun irudi batez lagunduta, moreak du garrantzia atari honetan eta lehen momentutik diseinatzaille, programatzaille eta proiektuaren garatzaileak, aurrera egin zuten planteamendu honekin. Hala ere, eta interakzio

erraz eta onena izateko, kolore zuriak darama atariaren agintea. Jendeak minutu batzuk emango ditu webgunean, bai kurtsoak egiten, baliabideak ikusten, ariketak burutzen... eta jakinekoea da meditazio edo irakurketarako egokiena kolore lasaiez inguratzea dela.

Maketazio eta programazio aldetik erronka handia izan da Artezentzat webgune hau garatzea. Moodle e-learning plataforma librea erabili dute horrek eskaintzen dituen abantaila batzuegatik: erabiltzaile eta edukien kudeaketa, segurtasuna, eta batez ere daukan trinkotasunagatik. Aurkitu duten eragozpen bakarra, aurretiaz prestatutako diseinua Moodle-era egokitzea izan da eta alde

horretatik programazio lan handia suposatuta die. Hala ere gustura "aritu" diren proiektua izan da, aberasgarria eta hobetzeko balio izango dena.



Asier Musatadi eta Hiba Muniozguren, diseinatzaileak

**ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA:** Bai Euskarari Ziurtagiria "Zerbitzua eta lana euskaraz" maila.

## EL CLUB DEPORTIVO URNIETA HA OBTENIDO EL **CERTIFICADO BAI EUSKARARI** GRACIAS AL TRABAJO REALIZADO POR IMPULSAR EL EUSKERA EN EL CLUB



El Club Deportivo Urnieta ha obtenido el nivel “Bidean” (“En Camino”) del Certificado Bai Euskarari. Ismael Hernández, presidente del Club, recibió el certificado de manos de Rober Gutiérrez, director de Ziurtagiriaren Elkarteak, en un acto que se celebró el 19 de abril en la casa de cultura de Urnieta. Hernández se mostró satisfecho tras recibir el Certificado, y subrayó el importante papel que desempeña a la hora de impulsar el euskera en el Club. Por su parte, Gu-

tiérrez felicitó al propio Hernández y al Club Deportivo Urnieta, animándoles a continuar con paso firme.

El Club Deportivo Urnieta comenzó su andadura hace 28 años; desde entonces trabaja en el ámbito deportivo de la localidad y a día de hoy cuenta con alrededor de 300 deportistas y unos 30 responsables. En palabras de su presidente Ismael Hernández, desde el club están realizando un esfuerzo por adaptarse a las necesidades del entorno. En ese sentido, Hernández resaltó el compromiso adquirido por el club hacia el euskera y la voluntad de afianzar el trabajo iniciado para incrementar la presencia del euskera en el club: “Aglutinamos un numeroso grupo de trabajo y no siempre estamos en disposición de contar con técnicos o responsables con el perfil adecuado, no es una tarea sencilla”.

## BOLETIN ELEKTRONIKOA **BIDEAN**

2009ko abenduan argitaratu zuen Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak **Bai Ziurtagiridunen Aldizkaria**-ren lehen alea. Orduz geroztik beste batzuk ere osatu ditu eta eskuarteak duzun haxe da bosgarrena. Ziurtagiriaren eta euskararen inguruko berriak jasotzen dira aldizkarian, baina edozeren gainetik Ziurtagiria duzuen entitateok zarete protagonista.

Hemendik aurrera, aldizkariaren bidez ez ezik, buletin elektronikoa bidez ere izan ahalko duzue Ziurtagiriaren Elkartearen gertatzen den guztiaren berri. Eta aldizkariarekin egin bezalaxe, buletin elektronikoarekin ere Bai Euskarari Ziurtagiria daukazuenean entitatearen gaineko informazioa zabaltzen jarraitu nahi du Ziurtagiriaren Elkarteak.

Ekainetik aurrera beraz, zuen posta elektronikoa jasoko duzue **Bai buletin elektronikoa**.

## **BAI EUSKARARI ERE EUSKALAKARI!**

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteak Korrikaren azken aurreko kilometroan parte hartu zuen Kontseiluarekin batera.



## EBALUAZIO FITXAK **ONLINE**

Bai Euskarari Ziurtagiria duten entitateek ikusgai izango dute online uneoro beren hizkuntza egoera aztertzeko eta planifikatzeko erabiltzen den fitxa. Ziurtagiriaren Elkarteak aplikazio informatiko bat (<http://azterketa.baieuskarari.org>) jarri du martxan intranetaren bidez eragile bakoitzak bere entitateari dagokion hizkuntza-egoera eta urteko ebaluazio bileran jasotako datuak kontsultatu ahal izateko modu erraz eta erosoan. Horretarako, entitate bakoitzak bere erabiltzaile izena eta pasahitza izango ditu. Azalpenak aurtengo ebaluazio bileretan emango dira.

# BAI EUSKARARI SARIAK

Ziurtagiriaren Elkarteak bi entitate saritu zituen otsailaren 1ean Donostiako Victoria Eugenia Clubean egin zen Bai Euskarari Sarien banaketa-ekitaldian. Sariketaren bigarren edizioan Refractorios Kelsen enpresak eta Hirukide Ikastetxeak jaso zuten Bai Euskarari Saria euskara enpresan txertatze-

ko helburuarekin aurrera eramandako ekintzengatik. Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusi ohiak, berriz, Bai Euskarari Laguna oroigarria jaso zuen euskararen normalizazioaren alde egindako lanagatik. Urteetako ibilbidea publikoki aitortu nahi izan dio Ziurtagiriaren Elkarteak.



## BAI EUSKARARI POUR LA COMMUNAUTÉ DE COMMUNES DE SOULE-XIBEROA AUSSI

La communauté de communes Soule-Xiberoa a reçu la mention "Euskararen bidean" du Label Bai Euskarari, car elle a pris l'engagement de travailler en euskara.

C'est la première communauté de communes qui obtient le Label Bai Euskarari

grâce à ses engagements en faveur de la langue basque.

Beaucoup de souletins ont pris la décision de vire en euskara et on peut notamment l'observer à Maule, où le Label Bai Euskarari a commencé à se développer dans différents commerces.

## ENPRESAREAN: ENPRESA EUSKALDUNAK, ELKARLANA ETA UTOPIA



Enpresa munduan elkarlanerako joera igartzen da; elkar ezagutzeko eta enpresa ezberdinen arteko elkarlana sustatzeko saiakerak egiten ari dira. Hortik, mota askotako ekimenak edo proiektuak sortu dira, enpresen arteko auzolanaren arrakasta kasuak, alegia. Baina, euskara ardatz hartuta, ba al da enpresa euskaldunen artean elkar ezagutzeko eta elkarrekin lan egiteko joerarik?

Orain arte oso ohikoa izan ez bada ere, Ziurtagiriaren Elkarteak eta Bitarlan enpresak uste dute elkarlan hori posible dela eta merezi duela gainera. Ez euskara biziberritzeko bakarrik, baita enpresak eurak errentagarriago egin eta negozio unitate berriak irekitzeko ere. Horrexegatik, sortu zuten bi entitateek Enpresarean ekimena eta aurrera begira egitasmoa onduz joateko proiektu berriak jarriko dituzte martxan.



TALLERES  
**MITXELENA**, S.COOP.

Eziago poligonoa, 21 • Hernani, Gipuzkoa  
Tel.: 943 552 512 / 552 516 • Fax: 943 552 816  
info@talleresmitxelena.com  
www.talleresmitxelena.com

# BAI EUSKARARI, URRATS BIZIAK

